

## Angeles Oteo Garridok 100 urte bete ditu

Azken eguneratzea: Larunbata, 08 Urria 2022 23:19

Argitaratua: Larunbata, 08 Urria 2022 14:11

---



Ehun urte bete dituzten herritarren artean aurkitzen da gaurdanik Angeles Oteo Garrido. 1968an etorri zen Briones (Errioxa) jaioteritik, senarraren lanbideak bultzatuta. Geltoki buru izanik Beasaingo tren geltokira bidali zuten eta bertako eraikinean bizi izan ziren 15 urtez. Hori dela eta familia osoarekin batera, Leire Artola alkatearekin eta Malu Valles ongizate saileko buruarekin argazkia atera dute gaur bertan. Beraien eskutik jaso ditu oroimenezko plaka eta lore sorta, baita beasaingar guztien izenean zorionik beroena. Bejondeizula Angeles!